

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, PROZEDURA NEGOZIATU HAU ARAUTUKO DUENA: DONOSTIAKO ANOETA ESTADIOA ERABERRITZEKO PROIEKTUARI DAGOKION ERANTZUKIZUN ZIBILA ESTALIKO DUEN ASEGURU BAT KONTRATATZEA – 1etik 10era bitarteko LOTEAK (biak barne)

1. HARTZAILEA:

Anoeta Kiroldegia, Ciudad deportiva de Anoeta, S.A.

2. ASEGURATUAK

Aseguru hartzaileaz gainera, aseguraturat hartzen dira –hirugarrenak izateari utzi gabe– honako hauek:

- Donostiako Udala
- Kontratista adjudikaziodunak, gainerako kontratistak eta azpikontratistak, edozein mailatakoak.
- Laguntza teknikoa eta Zuzendaritza eskuduna
- Diseinatzaileak eta hornitzaileak, agiriaren xede lanaren kokalekuan egindako jardueri dagokienez eta betiere kontratatuak dituzten eta jarduera egiteko eskatzen zaizkien aseguru polizek estaltzen ez dutena.
- Aseguratzeko interesa eduki dezakeen (eta goian aipatutakoen artean ez dagoena) beste edozein alderdi, hartzaileak alderdi hori edo horiek aseguratzeko betebeharra duen neurrian eta lanen kokalekuan jardun delako.

3. ASEGURUAREN XEDEA

Obrak eta prestatze lanak eta/edo lan osagarriak, behin-behineko edo behin betiko eraikuntzak, aseguratuaren ardurapekoak edo hark aseguratu beharrekoak, eta obraren lekuan egiten direnak, baita materialak eta hornidurak ere, erregaiak barne, eta aseguratuaren ardurapeko beste edozein jabetza.

4. DEFINIZIOAK

ASEGURATZAILEA: hitzartutako arriskua kontratu bidez bere gain hartzen duen aseguru entitatea

POLIZA: aseguruaren baldintza arautzaileak biltzen dituen dokumentua. Kontratuaren parte dira honako hauek: administrazio klausulen agiria eta baldintza teknikoen agiri hau, zeinak kontratazio hau arautzen baitute, baita ondoren hura osatzeko edo aldatzeko egin daitezkeen gehigarriak, eranskinak edo edizioak ere.

PRIMA: aseguruaren prezioa. Ordainagiriak aplikagarriak diren errekarguak eta zergak ere jasoko ditu.

1. **ASEGURATUA:** arriskupean den interesaren titularra; hala behar izanez gero, hari dagozko kontratutik eratorritako eskubideak. Aseguratuak aseguru hartzailearen betebeharrak har ditzake bere gain.
2. Aseguratua pertsona juridikoa denean, aseguraturatzat hartuko dira ere haren zuzendariak eta langileak, haren menpekoak diren bitartean.

HIRUGARRENAK: edozein pertsona fisiko edo juridiko, bezeroak eta erabiltzaileak barne, hauek ez direnak:

- a Aseguru hartzailea eta aseguraturua, edo ezbeharraren egilea.
- b Aseguru hartzailearen eta aseguratuaren ezkontideak, aurretikoak eta ondorengoak, bezero eta/edo erabiltzaile gisa jardun direnean izan ezik.
- c Aseguru hartzaile eta aseguratuarekin batera bizi diren senideak, bezero eta/edo erabiltzaile gisa jardun direnean izan ezik.
- d Izatez edo eskubidez aseguru hartzailearen edo aseguratuaren mendekoak diren bazkideak, zuzendariak, soldatapekoak eta pertsonak, mendekotasun horren esparruan jardun diren bitartean.
- e **KALTEAK:** poliza honek soilik kalte hauek indemnitzatu ahal izango ditu:
- f **GORPUTZEKOAK:** pertsona fisikoek jasandako lesioak, gaixotasunak edo heriotza.
- g **MATERIALAK:** gauza bat kaltetu, hondatu eta suntsitzea, baita animaliei egindako kaltea ere.
- h **GALERAK:** poliza honek estalitako gorputzeko kalteen edo kalte materialen ondorio zuzena den galera ekonomikoa; galera horren erreklamatzailerak jasandakoak.

LEHEN MAILAKO ONDARE KALTEA (GALERA IMMATERIALA): aseguraturako jardueraren ondorioz hirugarren pertsonak jasaten duten ondare kaltea edo galera da, eta zuzenean edo berehala eskubide batez gozatzea eragozten du; hau da, aurretiko galera batetik eratorritako kalte pertsonal, material edo ondoriozko kalte baten ondorio zuzenak ez diren galerak.

EZBEHARRA: aseguruaren legezko ardurapean egon daitekeen gertaera oro, betiere aseguru kontratu honen xedea denean eta polizaren bermeak eskatzen dituzenean, hitzartutako zehaztapen eta baldintzetan.

EZBEHAR UNITATEA: jatorri edo arrazoi beretik eratorritako inguruabar edo gertaeren segida ezbehar bakartzat hartuko da, kaltetuen eta erreklamazioen kopurua alde batera utzita. Ezbeharraren gertaera data ezbeharraren lehen gertaera edo inguruabarra izango da.

ERREKLAMAZIOA: zuzenbidearen arabera adierazitako eskakizun judiziala edo estrajudiziala. Aseguruaren aurkakoa izan daiteke, polizak babesten duen gertaera kaltegarri baten ustezko arduradun gisa, edo aseguratzaillearen aurkakoa, arrazoi horrengatik ekintza zuzenean jardutean. Baita aseguruaren erantzukizuna ekar dezakeen edozein gertaera edo inguruabar aseguratzaileri jakinaraztea ere.

IZENDAPENAK:

1. **GEHIENeko KALTE-ORDAINA EZBEHARREKO:** aseguratzailleak, edozein kasutan, poliza honek babestutako ezbeharreko indemnitzatu beharreko gehieneko kopurua, eraginpeko estaldura kopurua eta biktima edo kaltetuen kopurua edozein dela ere.
2. **AZPIMUGAK:** baldintza partikularretan adierazitako kopuruak; hau da, aseguratzailleak baldintza horietan zehaztutako estaldura bakoitzeko bere gain hartzen dituen gehieneko mugak. Horri begira, biktimako azpimugatzat hartuko da polizak lesio, gaixotasun eta heriotzagatik pertsona bakoitzari indemnitzatu diezaiokkeen gehieneko kopurua. Edonola ere, baldintza partikularretan ezbeharreko ezarritako gehieneko muga izango da ezbeharreko gehieneko kalte-ordaina.
3. **ASEGURU POLIZAREN IRAUPENEGATIKO MUGA** (iraupen hori ez da urtekoa, hortik gorakoa baizik): aseguratzaillearen konturako gehieneko kopurua aseguruaren aldi bakoitzeko, ezbehar batean edo batzuetan kontsumitzen den alde batera utzita. Aseguru aldia efektu dataren eta epemuga dataren arteko denbora tartea da; datak baldintza partikularretan adierazten dira edo primen azken ordainagirian ezarritako urteko aldian.

FRANKIZIA: agiri honetan berariaz hitzartutako kopurua, ezbehar bakoitzari dagokion kalte-ordainetik kenduko dena.



5. ASEGURUAREN IRAUPENA

Zehaztu beharrekoa, hasiera batean, eta luzapenak adosteko aukera baztertu gabe, 45 hilabetekoa izango da, zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen denetik obraren onarpena egin arte.

ERAIKUNTZA ALDIA	45 hilabete, hasiera eta amaiera datak bat etorriko dira zuinketa egiaztatzeko akta eta onarpen akta sinatzeko datekin.
-------------------------	---

6. ESTALDURAREN IRAUPENA

Aseguru poliza honek aseguruaren indarraldian izandako gertaerengatik hirugarrenek adierazitako erreklamazioak onartzen ditu; aldi horri 36 hilabete gehitu behar zaizkio berme aldi gisa.

7. ESTALDURA LUZAPENAK

Proiektu hau osatzen duten sektore bakoitzerako finkatutako amaiera data iritsi, eta lanak amaitu ez badira, estaldura aldia lanak amaitu arte luzatuko da. Aldez aurretik horren berri emango zaio aseguratzailerari eta horren kostuak honako hauek izango dira:

- 4 hilabete: prima osagarririk gabe.
- 4 eta 9 hilabete artean: denbora hainbanaketarako prima
- 9 hilabete baino gehiago: kasu bakoitzean adostuko da.

8. ASEGURATUTAKO KOPURUAK – ERANTZUKIZUN MUGAK

Erantzukizun zibila (erantzukizun muga)	20.000.000 €, ezbeharreko, behean gehienekoa 20 MM €-koa bada jarri behar da muga hau.
--	--

9. BERME OSAGARRIAK / KALTE-ORDAINAREN MUGAK

Agiriaren estaldurek babestutako gastu eta kalteengatik gehieneko kalte-ordainak ezingo du gainditu aseguratutako kopuru gisa adierazitako balio osoa.

Baldintza berezietan jasotako klausulen zehaztapenen arabera, honako muga eta azpimuga hauek ezartzen dira:

Erantzukizun muga (€), ezbeharreko edo ezbeharreko eta estalduraren iraupenean, kasuen arabera

Ustiapeneko erantzukizun zibila	Gehienez 20.000.000 €
Erantzukizun zibil gurutzatua –soilik kalte pertsonalak– eta patronala	Gehienez 20.000.000 € eta gehienez 1.200.000 € biktimako azpimuga gisa.
Lanen ondorengo erantzukizun zibila (24 hilabete)	Gehienez 20.000.000 €, ezbeharreko eta estaldurak iraun bitartean
Ezbeharrezko kutsaduratik eratorritako erantzukizun zibila	Gehienez 20.000.000 €, ezbeharreko eta estaldurak iraun bitartean
Adjudikazioduna ez den kontratistaren eta azpikontratisten erantzukizun zibil solidarioa eta subsidiarioa	Gehienez 20.000.000 €
Makineria edo ekipo propioa edo kontratistek eta azpikontratistek alokatutakoa erabiltzearen ondorioz sortutako erantzukizun zibila	Gehienez 20.000.000 €
Aseguratutako proiektuaren lotearen barruan ez dauden Donostiako Udalaren ondasunetan egindako kalteengatiko erantzukizun zibila	Gehienez 20.000.000 €
Ondare galera garbiak	Gehienez 2.000.000 €, ezbeharreko eta estaldurak iraun bitartean
Erabilitako ondasunetan izandako kalte materialak	Gehienez 10.000 € ezbeharreko eta 50.000 € polizak iraun bitartean
Hirugarrenen ondasun fidakorren azpimuga	Gehienez 50.000 € ezbeharreko eta 100.000 € polizak iraun bitartean
Defentsa eta fidantza zibil eta penalen gastuak	Estalduran sartuta daude

10. FRANKIZIAK

Ezbehar bakoitzaren likidazioa frankizia hauek aplikatuta egingo da:

- Orokorra..... 10.000 €
- Erantzukizun zibil patronala eta gurutzatua.....15.000 €

11. ERREGULARIZAZIOA

Lanak amaitzean, aseguruak horren balio osoa adierazteko konpromisoa hartzen du eta, hasieran adierazitako balioa gaudituz gero, prima erregularizatu, eta dagokion prima osagarria kobratuko da.

12. ARRISKUA ALDATZEA

Aseguruak aseguratzaileari adierazitako inguruabarren batean aldaketa materiala gertatuz gero, aseguruak arriskuaren aldaketa komunikatu beharko du, ahalik eta lasterren. Hala, inguruabar berriei buruzko datu osoak emango ditu, eta aseguratzaileak kontratuaren baldintzak aldatzeko eskubidea izango du.

Definituta dago jada EZBEHARREAN eta EZBEHAR UNITATEAN.

13. EZBEHARRA JAKINARAZTEA

Galera edo kaltea gertatuz gero, aseguruaren beharra izango da:

- Ezbeharra ahalik eta lasterren komunikatuko zaio aseguratzaileari, eta, edonola ere, aseguruak kaltetu duela uste duen hirugarren batek egindako erreklamazioa jaso ondoren.
- Beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea, aseguratutako ondasun guztiak babesteko hirugarrenei gerta dakiekeen galera edo kalte osagarri baten aurrean.
- Aseguratzaileari aseguruak sinatutako adierazpen bat ematea, non ahal bezain ongi deskribatuko diren ezbeharraren ordua, data eta hirugarrenei eragindako kalteak eta/edo galerak.

Izendatutako peritua: RTS/ Abaco.

14. ERREPIKATZE - SUBROGAZIO ESKUBIDEAK

Aseguru hartzailearen parte direnean izan ezik, azpikontratatistak, hornitzaileak, arkitektoak, aholkulariak eta diseinu kabineteak aseguratutzat hartuko dira aseguru honetan, baldin eta aseguru kontratu honek emandako baldintzen onurak haiei ematea adostu bada akordio edo kontratu baten bidez. Bestela, aseguratzaileek beretzat gordeko dute alde horren edo horien aurkako errepikatze eta/edo subrogazio eskubidea:

- ezbehar bat ordaindu aurretik, baina soilik alde aurretik aseguru hartzailearekin ados jarrita
edo
- ezbeharra ordaindu ondoren.

Baldintza honetan sartutako eduki bakar batek ere ez ditu aseguratzaileak salbuetsiko ezbeharrak lastertasunez indemnitzatzeko betebeharretik, egon daitekeen edozein errekurtsio eta/edo subrogazio eskubide gauzatu baino lehen, non eta aseguru hartzaileak halakorik onartu duen idatziz.

Errekurtsio eta/edo subrogazio eskubideak borondatez dispentsatu badira eta/edo aseguru hartzaileak esku hartzen duten alde horiek kontratu honen estalduran aseguratzea onartu badu edo horretara behartuta badago, onura eta/edo akordio horretan sartutako aldeak aseguratutzat hartuko dira, dagozkien eskubide eta interesetan.

Berariaz adosten da jabetzaren erantzukizuna salbuestea, haren aurrean sobrogazio eskubideak gauzatzeari berariaz uko eginda.

15. EZEZTAPENARI UKO EGITEKO KLAUSULA EZBEHARRA IZANEZ GERO

Aseguratzaileak ezingo du kontratu hau ezeztatu, ezarritako estaldura epean kontratu honek babestutako ezbehar bat gertatu ondoren.

16. LEGE ETA JURISDIKZIO APLIKAGARRIA – LURRALDE EREMUA

Jurisdikzio aplikagarria: Espainiarra.

Lurralde eremua: mundu osoa, AEB, Kanada eta Australia izan ezik.

17. BALDINTZA OROKORRAK INDARGABETZEA

Klausula honen bidez, indargabetuta geratzen dira aseguru poliza honen baldintza orokorrak eta partikularrak eta bereziak, baldin eta baldintza teknikoen agiri honek edozein xedapenetan ezarritakoa aldatzen, mugatzen edo ezeztatzen badute, xedapen horiek lehenetsiko baitira beste edozeinen aurrean.

18. ESTALITAKO ARRISKUAK

18.1. USTIAPENEN ERANTZUKIZUN ZIBILA

Kontratu honetan adierazitako zehaztapen eta baldintzetan, aseguratzaileak bere kargura hartuko du aseguratuari modu zuzenean, solidarioan, mankomunatuan edo subsidiarioan eskatuko zaion erantzukizun zibila, zeina eskatuko baitzaio exekuzioaren berariazko lanengatik eta bere langileek (teknikariak barne: arkitektoak, ingeniariak...) edo legez bere ardurapean ari diren pertsonen egindako ekintza edo omisioengatik; betiere beren enplegu edo karguei dagozkien lanak egiten ari direnean, asegurua kontratatzeke datan indarrean dauden legeek ezarritakoaren arabera.

Berariaz estalita egongo dira jarraian adierazitako kontzeptuengatik aseguratuari egotz dakizkioken erantzukizun zibilak:

Lokalak: enpresaren ustiapenean erabilitako ondasun higigarrien eta higiezinen jabe, usufruktudun, errentari eta/edo erabiltzaile gisa, baita erantzukizun zibila ere alokairu erregimenean bulegoetarako okupatutako ondasun higiezinen jabeen aurrean, baldin eta kalteak horien hondatze, erabilera edo higaduraren ondorio izan ez badira.

Ibilgailu motordunak: horien erabileraren ondorioz, hartzailearen esku jartzen direnean zerbitzu eginkizunetarako, beste edozein poliza balioudun eta kobragarri batek estaltzen ez duenaren ginetik, aseguruaren izenean edo ala ez, eta betiere ibilgailu motordunentzako nahitaezko asegururako legez ezarritako estaldura eta mugen ginetik.

Berme horren barruan, hirugarren gisa hartuko dira ere aseguruaren langileak.

Leherketak: hartzaileak/aseguratuak kontrolatu, zuzendu eta/edo egindakoak.

Salgaien garraioa: lurreko garraiorako ibilgailuetan, bai bere jabetzakoak eta hirugarrenenak, baita zamalanak, aldatze eta biltegitarte lanak ere.

Enpresaren zerbitzu medikuak: horri begira, agiri honen estaldurak beti jardungo du aipatutako zerbitzuen edo bertako langileen jarduerari aplikatu dakiokeen beste poliza baten baldintzen mugetatik kanpo.

Langileen ondasun materialen gaineko kalteak: aseguruak bere langileen gauzetan edo ondasunetan izandako kalteengatik izan dezakeen erantzukizuna babesten da, kalteak aseguratuak proiektua exekutatzeko lekuan gertatzen direnean; barne hartzen dira horien lapurreta edo galera. Kanpoan geratzen dira langileek beren kabuz beren ondasunetan egindako kalteengatik egindako erreklamazioak.

Ibilgailuen kasuan, berme honek soilik izango du eragina, baldin eta ibilgailuak etengabeko zaintzapeko aparkalekuetan badaude edo dauden lekuetan baimendu gabeko pertsonen sarrera eta erabilera eragozten bada. Estaldura honetan ez dira sartzen ibilgailuen arteko talken ondorioz izandako kalteak.

Aseguratuak legokiokeen kalte-ordainaren ardura hartuko du bere gain, soilik beste aseguru poliza batek babestutako estaldurarik ez badago, hala nola sutea, lapurreta, kalte propioak edo kaltea egin duenaren erantzukizun zibila.

Estaldura honetan ez dira sartzen dirua, tituluak, balioak, aurrezki liburuak, txeketegiak, dokumentuak eta bitxiak galdu edo lapurtzeagatik egindako erreklamazioak.

Era berean, poliza honek bermatzen du enpresaren zerbitzuak betetzeko langileen edo hirugarrenen ibilgailu motordunak erabiltzeagatik aseguruak izan dezakeen erantzukizun zibila.

Estaldura hau ematen da ibilgailu motordunen zirkulazio eta erabilerarako nahitaezko aseguruak ezarritako mugaren gainetik, baita arrisku espezifiko hori babesteko egin daitekeen beste edozein aseguru baliagarri eta kobragarriren mugaren gainetik ere.

Kalteak hirugarrenen ondasunetan: aseguratuaren zaintza eta kontrolpean dauden ondasunak, erabili eta/edo manipulatu eta/edo biltegitratuko direnak bai haren lokaletan bai lanak egingo diren lekuetan.

Baldin eta aseguratuak lanen bat egiten badu lehengo ondasunen gainean eta horren ondorioz kalteren bat sortzen bada, bermetik kanpo geratuko da beti lana zuzenean egiten ari den ondasunaren zatia edo elementua.

Kontratista adjudikazioduna/k, bestelako kontratista/k eta azpikontratista/k:

Kontratistek, azpikontratistek eta, oro har, laneko menpekotasun harremanik izan gabe aseguratuaren kontura jardun diren pertsonak egindako kalteengatik aseguratuari, modu zuzenean, solidarioan edo subsidiarioan, legokiokeen erantzukizuna.

Aseguratuak lanak egiten dituen lekuan kokatutako hirugarrenen edo nagusiaren ondasun higigarri eta/edo higiezinetan sortutako kalte materialengatik eta ondoriozko galerengatik erantzukizun zibila; kanpoan geratuko dira, edonola ere, aseguratuak lanean ari den obraren zati espezifikoak jasandako kaltea.

18.2. ERANTZUKIZUN ZIBIL GURUTZATUA (SOILIK KALTE PERTSONALAK)

Estaldura honen bidez ezartzen denaren arabera, asegurua pertsona bat (fisikoa eta/edo juridikoa) baino gehiagoren onurarako kontratatzean, kontratu honek estaliko duen erantzukizun zibila duten pertsona guztiak hirugarrentzat hartuko dira elkarren artean, eta biktimako 1.200.000 €-ko azpimuga ezarriko da, estaldura honen arabera.

Aseguratzailleak uko egiten dio berariaz aseguru honen baldintzen arabera indemnizagarria izan daitekeen gertaera baten ondorioz aseguraturako aldean aurka eduki edo eskura dezakeen subrogazio edo ekintza eskubideari, non eta poliza baliagarri eta kobragarri bat dagoen eta, hala bada, haren mugaraino.

Kanpoan geratuko dira, edonola ere, aseguratuaren eta/edo haren kontratistaren edo azpikontratisten lanaren xede den obra berak izan ditzakeen kalteak, baita horretan erabilitako ekipoak eta makineria ere.

18.3. ERANTZUKIZUN ZIBIL PATRONALA

Estaldura honen bidez, Espainiako gizarte segurantzaren menpeko lan kontratua duen edo, indarreko legediaren arabera, halako bat eduki beharko lukeen edonork jasan ditzakeen kalteak babestuta geratzen dira, kalteak aseguratuaren kontura lanean ari den bitartean gertatu badira haren jarduerari lotutako zereginetan eta lan istripu baten ondorioz.

Biktimako 1.200.000 €-ko azpimuga ezartzen da, estaldura honen arabera.

Estalduta geratuko da ere, kalte-ordainen mugen barruan, osasun prestazioen kostuaren erreklamazioa, zeina laneko istripuen eta laneko gaixotasunen aseguru

entitateek aurkez diezaioketen aseguratuari, Gizarte Segurantzaren Legearen arabera.

LANEKO ISTRIPUEN ERANTZUKIZUN ZIBILAREN SALBUESPENAK

- Laneko istripuztat jo ez diren gertakariengatiko erantzukizunak.
- Hitzarmen sektorialek edo partikularrek laneko istripuen edo laneko gaixotasunen kasuetarako ezarritako betebeharretatik eratorritako kalte-ordainak, errekarquak edo borondatezko hobekuntzak.
- Langileak bere lana gauzatzeagatik hartutako laneko gaixotasunengatiko edo lanekoak ez diren gaixotasunengatiko, zein miokardioko infartu, tronbosi, garuneko odoljario eta antzeko etiologiako gaixotasunengatiko kalte-ordainak eta asistentzia gastuak.
- Edozer motatako isunak eta zehapenak, baita indarreko legedian zigor izaerarekin ezarritako prestazioen errekarquak ere.
- Enpresaburuak kontratuan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatiko erreklamazioak, izaera orokorrekoak eta gorputzeko kalteak eragiten ez dituztenak.
- Kalte materialen ordaina.
- Poliza honen arabera aseguruatu izaera ez duten kontratisten eta azpikontratisten erantzukizunak.

18.4. PRODUKTUEN ETA LANEN ONDOKOEN ERANTZUKIZUN ZIBILA

Estaldura honen bitartez, esanbidez hitzartzen da aseguruatuak honako hauek eragindako kalteen ondorioz izan dezakeen erantzukizun zibila estaltzea:

- Produktuak eta ondasunak haiek entregatu ostean.
- Jaso ostean exekutaturiko lanak.
- Zerbitzuak, haien ematea onartu ostean.

DEFINIZIOAK:

Estaldura honen eraginetarako, honako definizio hauek joko dira ontzat:

- Produktua: Aseguruatuak fabrikatu, muntatu, mihiztatu edo merkaturatu duen edozer higigarri edo higiezin, baita higigarrien edo higiezinen substantziak, osagaiak edo piezak ere.
- Lana: Aseguruatuak edo haren mendekoek zuzenean eginiko obrak, muntaketak edo instalazioak.
- Zerbitzua: Premia publiko edo pribatu bat asetzen duten prestazio profesionalak, xede zuzen eta eskusibotzat ez dutenak ondasunak fabrikatzea, eskubide errealak edo intelektualak transferitzea, ezta kudeaketa, bitartekotza, ordezkartza, kontrol, aholkularitza edo informazio lanak egitea ere.

- Produktua entregatzea: Aseguratuak produktuaren gaineko kontrola izateari uzten dion unea, hura bitartekariei, biltegizainei edo amaierako hartzaileei entregatu dielako, ulertuta adierazitako produktuak edo ondasunak eskura izateko boterea galdu duela.
- Lanaren onarpena: Jabeak obra erreserbarik gabe onartzen duen unea.
- Zerbitzuaren onarpena: Prestazioa amaitutzat eman daitekeen unea, komitenteak erreserbarik gabe onartu ostean eskatutako zerbitzuak amaitu direla.

Kanpo geratuko dira:

- a Amaitutako produktuei eta/edo lanei eragindako kalteak.
- b Kalte pertsonala edo materiala ez den beste edozer kalte, eta haien zuzeneko ondorioak.
- c Produktuen eta/edo lanen erabiltzaileei eragindako kalteak, haiek dagokien eginkizuna betetzeko gaitasunik ez izatearen edo haientzat iragarritako ezaugarriei ez erantzutearen ondorioz.
- d Ondasunen erabilera eta/edo higadura arruntaren, edo erabilera galeraren ondorioz eragindako kalteak.
- e Lan akastunak kentzearen edo ordezkatzearen gastuak, baita balizko akatsak konpontzeko lanetatik sorturiko gastuak ere.
- f Obren edo lanen ikuskaritza, konponketa, eraiste, ordezkatzeko edo erabilera galeratik eratorritako gastuak edo kalte-ordainak, akats ezagun edo ustezko baten ondorioz.
- g Aplikagarri den zuzenbide positiboko edozer arau nahita hautsita egin diren obrek edo lanek eragindako kalteak, eta teknika egoki esperimentatu gabe –oro har aitorturiko arauen eta kasu horietan aplikatzen direnen arabera– egindako obrek, lanek edo zerbitzuek eragindakoak, baita jabeak edo kontratugileak emandako aginduetatik nahita desbideratuta eragindakoak ere, aseguratuak denean kontratista edo azpikontratista.

18.5. DEFENTSA ETA FIDANTZAK

Agiri honetan ezarritako zenbateko aseguratuaren mugarekin, eta betiere erreklamazioaren xedea estalduretan sartuta badago, bermatuta geratuko dira honako hauek ere:

- Prozeduraren emaitza zibilak bermatzeko eskaturiko fidantza judizialak eratzea.
- Kostu judizialak, aseguratzaileak kontratu honetan aurreikusitakoaren arabera ase behar duen kalte-ordainaren eta aseguratuak ezbeharrean duen erantzukizunaren zenbateko osoaren artean dagoen proportzio berean ordainduko direnak. Aurreko arauarekiko salbuespen gisa, berau ez da aplikagarri izango baldin eta proportzioa ezartzeko aseguratzaileak kalte-ordain gisa asetako zenbatekoa eta aseguratuak frankizia gisa asetakoa hartzen badira aintzat.

- Aseguratuak hartuko du bere gain zuzendaritza juridikoa kaltetuaren erreklamazioaren aurrean, eta haren konturakoak izango dira sortutako defentsa gastuak. Aseguru hartzaileak eta edozer aseguratuk beharrezko laguntza eman beharko dute aseguratuak bere gain hartutako zuzendaritza juridikoari dagokionez.
- Aseguratuak bere defentsa izendatzen duenean, sortutako gastu judizialak bere konturakoak izango dira, salbu eta kontrakoa adostu badute aseguratuen eta aseguratuaren artean; kasu horretan, gastu horiek unean-unean aseguratuaren abokatuentzat indarrean diren ordainsari baremoekin bat ordainduko dira.

Aurrez adierazitako prestazioak ere aplikagarri izango dira, baldin eta interesatuaren aurka prozesu kriminalak badaude, eta hark bere kontura bakarrik jartzeko askatasuna izango du. Azken kasu horretan, jarritako errekursoak aseguratuaren interesen aldeko epai bat ekarriko balu, haren kargurako kalte-ordaina murriztuta, errekursoak sorrarazitako gastuak bere gain hartzeko betebeharra izango du.

- Aseguratuen eta aseguratuaren artean gatazkarik balego ezbeharrean aseguratuak aseguratuen defentsaren aurkako interesak babestu behar dituelako, aseguratuak horren berri emango dio aseguratuari, premiazko izaeratik defentsarako beharrezkoak diren izapideak egiteko aukera gorabehera. Kasu horretan, aseguratuk bi aukera izango ditu: aseguratuak zuzendaritza juridikoari eusten jarraitzea, edo bere defentsa beste pertsona baten esku jartzea. Azken kasu horretan, aseguratuak zuzendaritza juridiko horren gastuak ordaindu beharko ditu, 300.000 €-ko mugara arte.
- Alderdi zibilean adiskidetasun akordio batera iritsi direnean, alderdi kriminaleko defentsa aukerakoa izango da aseguratuarentzat, eta defendatua alde aurretik ados egoteari lotuta egongo da.

18.6. EZBEHARREZKO KUTSADURAGATIKO ERANTZUKIZUNA

Estaldura honen bitartez, esanbidez hitzartzen da –indarreko legediari jarraikiz– urei, lurzoruei edo atmosferari eragindako kutsaduraren ondorioak babestea, betiere ezbeharrezko, aurreikusi gabeko, bat-bateko eta asmo txarrik gabe egindako kausa baten ondorioz direnean.

EZBEHARREZKO KUTSADURAGATIKO ERANTZUKIZUNAREN SALBUESPENAK

- Kalte genetikoak edo teratologikoak.
- Hondakin toxiko edo arriskutsuen kudeaketak edo sorrerak eragindako kalteak, baita haiek hondakin mota horiek biltzeko gaituriko zabortegetan eta bestelako instalazioetan gordailatzeak eragindakoak ere, instalazio horiek kontrolatuta egon ala ez.
- Kutsadura saihestezinetatik eratorritako erantzukizunak, ingurumenaren gaineko eraginak metatu direnean aseguratuk eginiko jarduera dela eta, edo araudi aplikagarria ezartzearen ondorioz isuri espezifikoaren kanonak esleitu direnean.

- Instalazioak leheneratzeko, konpontzeko edo hobetzeko gastuak, baldin eta haien akatsek kalteak eragiten badituzte edo eragin badituzakete ingurumenean.
- Jatorria aseguruaren eragin eguna baino lehen gertatu diren egoeretan edo gertakarietan duten erantzukizunak, edo aseguru aldia amaitu eta hamabi hilabete igaro ostean erreklamaturikoak, baldintza berezi hauetan ezarritako denbora muga gorabehera.

18.7. LEHEN MAILAKO ONDARE KALTEA (KALTE IMMATERIALA)

Estaldura honen bitartez babestuta geratzen dira edozer hirugarrenek aseguru hartzaileari edo aseguratuari eginiko erreklamazioak, baldin eta lehen mailako ondare kalteetatik –poliza honetako definizio atalean ezarritakoari jarraikiz– edo aldez aurreko kalte material edo pertsonal baten ondorio ez diren kalte ekonomikoetatik eratorritakoak badira, eta hirugarren bati eginikoak badira, aseguratuarentzat edo haren kontura eginiko jardunen baitan, eta aseguraturako proiektuarekin lotuta, edo gorputzeko kalte edo kalte material horiek zuzenean jasan ez dituen beste hirugarren bati eragindakoak badira, betiere aseguruaren xede den jardueraren ohiko prozesuetatik kanpo gertaturiko ezbehar batek edo gertakizun aparteko eta aleatorio batek eragindakoak badira eta, zuzenbidearen arabera, haien legezko erantzulea aseguraturua bada.

Baldintza beretan bermatuta geratzen da aseguratuaren beraren erantzukizun zibil zuzen, solidario edo subsidiarioa.

Ulertutzat eta adostutzat ematen da aseguratuak ez direla honako hauen erantzule izango:

- a Ondasunak edo haiek txertatu diren edozer artikulu edo gauza kendu, konpondu, berreskuratu, aldatu, ordezkatu, eraitsi, deuseztatu, bidali, berreraiki, hornitu, instalatu edo erretiratzearen kostua.
- b Kalte materialetatik eta/edo pertsonaletatik eratorritako erreklamazioak.
- c Ezbeharrezko, aparteko edo aleatorio izendapena ez duten gertakizunen gaineko erantzukizunak.
- d Hitzemate edo itun berezien arabera, legezko erantzukizunaren esparrutik harago doazen erreklamazioak.
- e Diruzko negozioen, higiezinaren edo bestelako merkataritza transakzioen aurrekontuak edo kredituak, bitartekaritza edo gomendioa, bai kostu bidezkoa, bai doakoa, gainditzetik eratorritako erreklamazioak.
- f Kutxan dirua falta delako, ordainketetan akatsak egin direlako edo aseguru hartzailearen edo aseguratuaren kontrol edo zaintzapean dauden pertsonen desleialtasunagatik jarritako erreklamazioak.
- g Aseguru hartzailearen edo aseguratuaren kideek, enplegatuek eta senideek eginiko erreklamazioak, haien senide gisa jota ezkontidea, zuzeneko ahaideak, aurrekoak eta ondorengoak, eta bigarren gradura arteko zehar ahaideak, eta, kasu guztietan, ahaidetasuna odolkidetasunagatik edo ezkontzagatik den gorabehera, haiek aseguru hartzailearen eta/edo aseguratuaren erabiltzaile edo bezero gisa jarduten badute izan ezik.

- h Sekretu profesionala urratzeagatiko erreklamazioak.
- i Patenteen, marken edo babes komertzialeko beste eskubide batzuen urraketan oinarrituriko erreklamazioak, baita oro har jabetza intelektualaren esparruaren barruan geratzen diren beste eskubide batzuetan oinarrituriko erreklamazioak ere.
- j Finantza galera, aseguratua ordainsari baten truke soilik emandako aholkularitza, diseinu, espezifikazio edo formula baten ondorioz.
- k Lizentzia arloko gabeziek edo hutsuneek eragindako gertakarietatik eratorritako erreklamazioak, eta bide eta ikuspegi zorretatik eratorritakoak.
- l Geldiarazteagatik, onurak galtzeagatik edo produktuaren edo zerbitzuaren funtzionamendu akastunetik edo dagokion xederako desegokia izateagatik eratorritako beste edozer kalte mota.
- m Produktuetan edo eraikuntzan akatsak edo omisioak antzemateko eta ezabatzeko gastuak eta kostuak. Edozer zenbateko edozer estatuturen, legez arauturiko estatuturen edo legeen arabera edozer xedapenen pean, edo kontratuaren arabera aseguratu erantzule egiten duen edozer zigor klausularen pean diren berandutze, isun, zigor edo ordainketen zigorrekin loturikoa.
- n Ondoriozko finantza galera bat, aseguratuaren zuzendari, ofizial edo project managerrek nahita eginiko edozer ekintza edo omisiotik eratorritakoa, eta haren erantzule izanik, aseguratuak emaitza hori aurreikusitako duenean, ekintza edo omisio horren izaera eta egoerak aintzat hartuta.
- o Edozer iruzur ekintza edo ekintza lizun.
- p Copyrighta, patenteak, markak eta izen komertzialak ematearekin edo urratzearekin loturiko edozer erantzukizun, edo edozer irain, konspirazio, kontratuaren hauste/urratze, edo larderia, edo legearen aurkako interferentzia edo bestelako edozer erantzukizun ekonomiko.
- q Berandutzaren edo kaudimengabeziaren ondoriozko finantza galera.
- r Edozer arrazoigatik gertaturiko finantza galera atal honen peko estaldura indarrean jarri baino lehen.
- s Hitzarmen baten baldintzen pean bakarrik aseguratuari egotz dakiekeen finantza galeragatiko erantzukizuna, salbu eta halako hitzarmenik egon ezean erantzukizuna egozgarria izan balitz.

SALBUESPEN OROKORRAK

Aseguru poliza honek babesturiko estalduretatik kanpo geratzen dira zuzenean edo zeharka honako hauetatik eratorritako erantzukizunak:

- 1 Doloa edo berankortasuna betebeharrak eta kontratuak betetzerakoan (Kode Zibileko 1101. artikulua).
- 2 Honako hauek zuzenean edo zeharka eragindako kalteak: gerra, terrorismoa, inbasioa, kanpoko etsaien ekintzak, etsaitasuna (gerra adierazpenarekin edo gabe), gerra zibila, matxinada, iraultza, altxamendua, boterearen militarizazioa edo usurpazioa edo gobernu baten edo agintari publiko edo tokiko agintari baten

- agindupean eginiko jabetzen konfiskazioa, nazionalizazioa, errequisa edo suntsiketa edo kaltea.
- 3 Erreakzio edo erradiazio nuklearrak edo kutsadura erradioaktiboak zuzenean edo zeharka eragindako kalteak.
 - 4 Aseguratuak bere borondatez eragindako kalteak, non eta ez diren izan beste ezbehar indemnizagarri handiago bat saihesteko eta horiek helburua lortu duten eta ekarri duten aurrezkiaren heinean. Doloa egoteak kanpo uzten du salbuespen hau.
 - 5 Aseguratua honako hauen jabe izatea edo honako hauek edukitzea edo erabiltzea:
 - a Matrikulatuta dauden motordun ibilgailuak eta ibilgailu industrialak, makineria autopropulsatua, motordun ibilgailuak eta haiek atoian eramandako edo haiei atxikitako elementuak (kasu guztietan, matrikularekin edo gabe), zirkulazioaren egoerak direla eta, epai judizialaren arabera kontzeptu hori biltzen ez duten eta horregatik motordun ibilgailuen zirkulaziorako nahitaezko aseguruari lotuta ez dauden kasuetan izan ezik.
 - b Salbuespen hori ez da aplikagarria izango 1. puntuan bildutako kasuak gertatzen direnean (Ustiapeneko Erantzukizun Zibila). Salbuespen honen indargabetze partzialak emandako estaldura aplikagarria izango da soilik adierazitako aseguruaren edo ibilgailu horiek duten beste edozer aseguruaren mugak gainditzen direnean.
 - c Aireontziak.
 - d Itsasontziak. Aseguratuak edo haren izenean beste norbaitek jabetzan duen edo bere esku duen 8 m-tik gorako luzerako edozer itsasontzi. Hala ere salbuespen hori ezingo zaio aplikatu aldi baterako ontzi horretan muntaturiko edo instalaturiko eraikuntzako ekipamenduaren eta makineriaren (edo aseguru honek bermaturiko beste ondasun batzuen) funtzionamendutik eratorritako erantzukizunari.
 - 6 Legeen edo izaera orokorreko xedapen administratiboen doloazko ez betetzea.
 - 7 Erantzukizun itunak (aseguratuak edo beren erantzukizuna estalita dutenek kontratu bidez onartutako erantzukizunak eta itun hori egon ezean beren erantzukizun zibil zorrotza gainditzen dutenak).
 - 8 Lanaren xede diren edo aseguratuak edo haren ardurapeko pertsonak aseguraturako jardueraren baitan esku hartu duten obretan edo ondasunetan eragindako kalteak.
 - 9 Alokaturiko bulegoetan eragindako kalteak, haien narriaduraren, erabileraren edo higaduraren ondorio direnean.
 - 10 Hartzailearen edo aseguraturako edozeinen ondasunak edo haien konturakoak daramatzaten ibilgailuek jasandako kalteak, zamalanetan zehar izan ezik.
 - 11 Asbestoak, edozer itxurapean edo kantitatetan, zuzenean edo zeharka, eragindako edozer kalte, edo haren ondoriozkoa edo hark larriturikoa.

- 12 Salgaien itsasoko/airetico garraioa (zamalana izan ezik).
- 13 Lur idorrean kokatuta ez dauden instalazioak edo jarduerak (OFF SHORE).
- 14 Nahitaezko aseguru batek estali beharreko kalteak/erantzukizunak (aurreko 5.a salbuespenean motordun ibilgailuei dagokienez eginiko salbuespenarekin).
- 15 Eredugarri izateko eta/edo zigortzeko ezarritako isunak edo zigorrak.
- 16 Edozer data oker errekonozitzea hardware edo software sistemak edo gailuak, gailu elektronikoak edo antzekoak erabiltzeagatik, baita edozer motatako software/hardware sistemen eta/edo interneteko zerbitzuen edo interneteko plataformekin edo merkataritza elektronikoarekin loturiko zerbitzuak ekoiztea, ezartzea, mantentzea eta/edo haiekin jarduerak egitea.
- 17 Uhinak, erradiazioak, interferentziak eta/edo eremu elektromagnetikoak.
- 18 Salgai sukoiak, toxikoak, korrosiboak edo arriskutsuak garraiatzea.
- 19 Kontratu honek babesten ez duen gorputzeko kalte edo kalte material baten ondorio diren galera ekonomikoak.
- 20 Lizun toxikoak, onddoak edo esporek zuzenean edo zeharka sorturiko edo haiekin loturiko edozer kalte.
- 21 Balizko arduragabekeria, errore edo omisio baten ondorio den edozer kalte, aseguratuena lan profesionalen jardunean gertaturikoa (proiektugile gisa jarduterakoan, proiektuak idazten laguntzeko lanetan, zuzendaritza fakultatiboan edo obra zuzendaritzan, project manager gisa, eta, oro har, obren exekuzio materialetan esku hartzetik kanpo geratzen den edozer jardun profesionaletan). Zehazki, honako hauek daude kanpoan:
 - a Obretan eta aseguratuena jabetzakoak diren (edo haien kontrol eta zaintzapean dauden) beste edozer ondasunetan eragindako kalteak, edo lanen xede diren ondasunetan edo aseguratuak edo haren ardurapeko pertsonak jardueraren aseguratuaren jardunean esku hartzeak egin dituzten ondasunetan.
 - b Jatorria Kode Zibilaren 1591. artikuluan eta harekin bat datorren araudian Erantzukizun Zibil Profesional/Hamar Urtekoa kontzeptuari buruz ezarritako xedapenetan duten kalteak.
- 22 Ingurumen erantzukizunagatiko edozer erreklamazio honako hauetan oinarriturikoa: Ingurumen erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea eta Administrazio Publikoak eskatutako edo eska lezakeen hura garatzeko araudia.
- 23 Ez da berrmatuko amiantotik edo amiantoa duten materialen batetik eratorritako edo horri lotutako erantzukizunik, galerarik, eskaerarik, erreklamaziorik edo "auzirik".
- 24 Agiri honetako bermeetatik salbuetsita geratuko dira edozer eratako korrosioak, oxidazioak, higadurak, kabitazioak, herdoilak eta inkrustaziek eragindako erantzukizunak. Salbuespena ez da zabalduko lehengo inguruabar batengatik izandako gertaera baten ondorioz kalteak jasandako gainerako ondasun aseguratueta.

- 25 Salbuetsita geratzen da edozein erantzukizun, efektiboa edo alegatua izan, asbestoak, edozein forma edo kantitatetan, zuzenean nahiz zeharka, eragindako edo areagotutako galeren edo ezbeharren kontzeptupean.
- 26 Aseguratutako ondasunei eragiten dien erantzukizuna, jabetzak ustiatu izanaren ondorioz gertatutakoa, bertan ezarritako aseguru aldietatik kanpo.
- 27 Agiri honetan gertaeragatiko frankizia kontzeptupean agertzen diren zenbatekoak.
- 28 Kaltea eragin dakioken edozer ondasunen higadura, erabilera edo narriadura gradualetik eratorritako erantzukizuna.
- 29 Inbentarioa egiterakoan antzemandako justifikatu gabeko desagertzetik edo defizitetik eratorritako erantzukizuna, baita aseguratutako ondasunen ebasketa eta lapurreta ere.
- 30 Eskudiruari, balioei, ordaindukoei, posta bidezko igorpenei, txekeei edo zigiluei erasandako galera edo kaltetik eratorritako erantzukizuna.
- 31 Aseguratuaren edo aseguru hartzailearen doloa edo erru larria. Salbuespen honetarako, "aseguratua" kontzeptua aseguratutako sozietatearen zuzendaritza organoei eta haien ordezkariak dagokie (hartzailearen edo aseguratuaren ahalorde nagusiak).
- 32 Honako produktu hauek saltzea edo fabrikatzea:
 - a. Fenfluramina, Dexfenfluramina eta/edo Phentermina.
 - b. Jatorria giza material biologikoetan duten produktuak.
 - c. Thimerosal, Fluoxetina, Phenylpropanolamina (ppa), Methylphenidate, Troglitazone, Statins eta Fibrates.
 - d. Ru 468 edo abortua eragiten duen beste edozer produktu mota.
 - e. Txertoak.
- 33 Honako hauekin loturiko erreklamazioak:
 - a. Behien entzefalopatia esponjiformea edo Creutzfeld-Jakoben gaixotasuna.
 - b. Patenteen urratzea.
 - c. Tabakoaren produktuak, nikotina eragile terapeutiko gisa erabiltzen denean kenduta.
 - d. Kontseilarien eta zuzendarien erantzukizuna (D&O).